



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
18/02/09

Bizkaiko Foru Aldundiak modu positiboan balorau dau landa inguruetako larrialdien koordinaziorako zerbitzu barria

Batzar Nagusietako Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Batzordeak, azken 25 urte baino gehiagotan landa guneetako larrialdiak koordinatu eta gero Base Gorria zerbitzua desagertu osteko egoeraren balantzea aztertu dau gaur goizean. Beste esku-hartze batzuen artean, basoetako suak dagoz. Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Foru Diputatuak, bere Sailaren eta Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru arduradunaren izenean egin dau berba, Podemos Bizkaia taldeak eta Talde Mistoak egin dituen agerraldi eskari biri erantzuteko.

Joan dan abenduaren 4an Base Gorria zerbitzua desaginda geratu zan, eta suteen, kontrolautako erreketen, fauna erreskatetearen edo berreskuratzearen, hildako abereak batzearen, koadrila zinegetikoen eta komunikazio zentroaren kudeaketaren gaineko ohar guztiak, beste batzuen artean, koordinetan dituan operatibo barri batek hartu dau haren lekua. Aldaketa horrek, zerbitzu horreetan aritzen diran beharginen ordezkarien kexa eta salaketa batzuk eragin ditu.

Podemos Bizkaiak eta Talde Mistoak behin eta berrero aitatu dabe koherentzia faltea egon dala, 25 urte baino gehiagoz ondo funtzionatu dauen zerbitzua desagitean, eta jasotako kexen eta operatibo barriak planteetan dituan zalantzen inguruan arreteta deitu dabe. EH Bilduren eretziz, aldaketa “zentsun bakoa” izan da, eta adierazo dauenez, zerbitzuak “txarrera egin dau, eta kudeaketa publiko eredu batetik, pribatizazio nabarmenera igaro gara”. Talde Popularrak adierazo dauenez, holango zerbitzuetan eraginkortasunak izan behar dau lehentasuna, eta zehaztu dauenez, “Aldundiarentzat merkeagoa izan da telekomunikazio zerbitzua azpi-kontrateta Base Gorriko lantaldea handitzea baino”.

Iraunkortasuneko Foru Diputatuak, landa guneetako larrialdien koordinazioan jasoten diran egiteko guztiak eta jarduketarako prozeduretan erregistrau diran aldaketak zehaztasun osoz azaldu ditu. Unzuetak esan dauenez, datu guztiek zerbitzuaren eraginkortasuna hobetu egin dala erakusten dabe. Holan, azpimarratu dauenez, zerbitzu barria martxan jarri danetik jaso diran ia 3.000 deietatik, 25ek baino ez dabe jazoeraren bat izan, hau da, guztien %0,85ak. Bere eretziz, prozesu barriaren trazagarritasunak, gainera, jazoera horreek hobekuntzarako aukerea bilakatzeko modua emoten dau. Bere azalpenek Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen aldeko eretzia jaso dabe. Gainera, zerbitzu barriaren balorazioa egiteko oso denpora gitxi igaro dala azpimarratu dabe talde horreek.

La Diputación Foral de Bizkaia valora positivamente el nuevo servicio de coordinación de emergencias en zonas rurales

La Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales ha abordado esta mañana el balance de la situación tras la disolución del servicio de Base Gorria que desde hace más de 25 años ha coordinado las emergencias en zonas rurales, que incluyen, entre otras intervenciones, los casos de incendios forestales. La Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha intervenido en nombre de su Departamento y en el de Ibone Bengoetxea, responsable foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, para responder a sendas peticiones de comparecencia por parte de Podemos Bizkaia y Grupo Mixto.

El pasado 4 de diciembre el servicio Base Gorria quedó disuelto y fue sustituido por un nuevo operativo que coordina todos los avisos sobre incendios, quemas controladas, rescate o recuperación de fauna, recogida de reses muertas, cuadrillas cinegéticas y gestión del centro de comunicaciones, entre otras tareas. Esta modificación ha provocado algunas quejas y denuncias por parte de la representación de los trabajadores adscritos a estos servicios.

Podemos Bizkaia y Grupo Mixto han insistido en la falta de coherencia al disolver un servicio que ha funcionado bien durante más de 25 años, y han llamado la atención sobre las quejas recibidas y sobre las dudas que plantea el nuevo operativo. EH Bildu ha calificado el cambio como “un despropósito”, y ha asegurado que el servicio “ha empeorado, y hemos pasado de un modelo de gestión pública a una privatización de libro”. El Grupo Popular ha señalado que la eficiencia debe ser prioritaria en este tipo de servicios, precisando que “a la Diputación le ha salido más barato subcontratar las telecomunicaciones que aumentar la plantilla de Base Gorria”.

La Diputada Foral de Sostenibilidad ha hecho un detallado repaso de todas las tareas incluidas en la coordinación de emergencias en zonas rurales y de los cambios registrados en los diferentes procedimientos de actuación. Unzueta ha asegurado que todos los datos disponibles confirman una mejora en la eficiencia y eficacia del servicio. En este sentido, ha subrayado el hecho de que, sobre casi 3.000 llamadas recibidas desde la puesta en marcha del nuevo servicio, tan solo 25 han registrado incidencias, lo cual supone un 0,85% del total. A su juicio, la trazabilidad del nuevo proceso permite, además, convertir estas incidencias en oportunidades de mejora. Sus argumentos han recibido el apoyo de los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, que han incidido, asimismo, en el escaso tiempo transcurrido para poder hacer una valoración del nuevo servicio.